

KOSTUEN EGITURA:

Negozio-eredu batzuk prezio baxuak dituztelako funtzionatzen dute; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik.

Gure enpresaren kasuan, balioan oinarritutako negozio-eredua izango da. Hau da, gure enpresaren interes handiena ez da kostuak minimizatzea, bezeroari kirola egiten laguntzea da modu horretan energia sortuz. Balioan oinarritutako enpresa honek, kontzientzia energia sortzean dauka eta kutsakorrak ez diren beste gimnasio eredu bat sortzea. Horrela, ospea izatera iritsi nahi dugu eta bezeroarengana heldu. Gainera, gure helburu nagusia ez da etekinak maximizatzea eta gastuak gutxitzea, kontzientzia ekologikoa sortzea baizik.

Gure enpresarako, bakoitzak diru zati bat jarriko du eta horrez gain, bankuari prestamo bat eskatuko diogu, diru kantitate haundia baita dena eratzea.

Gure enpresa eraikitzeko, arkitekto batekin jarriko gara harremanetan eta haren lan taldearekin. Haiak, gure enpresa eratzeko. Lokala, sei zatitan banatzeko eskatu diegu, harrera gunea barne. Hiru kirol gela jarriko ditugu, laugarren gela bat gimnasiorako, eta bostgarren eta seigarren gelak, aldagelentzako utziko ditugu.

Aldagelak jarri ditugunez, dutxatzeko aukera ematen dugu. Horrela, uraren kostuak ere izango ditugu.

Halaber, eguzki-panelak jarriko genituzke. Eguzki-panelak egitura metalikoak dira, beti eguzkiari begira dauden lekuetan kokatuak. Energia elektrikoa sortzeko balio dute, zelula fotovoltaiko askori esker. Zelula horiek seriean edo paraleloan muntatuta egon daitezke, eta elkarrekin energia sortzen dute ura berotzeko edo elektrizitatea sortzeko. Energia hori eguzki-energiaren metagailuetan metatzen da. Goiener enpresarekin harremanetan jarriko gara, %100 berriztagarri den energia eskaintzen dutelako. Autokontsumo zerbitzua eskaintzen digute, norberak bere energia elektrikoa sortzeko. Goienerren autokontsumo tarifa, 0,198€/kWh-koa da.

Kirola egiteko, kirol makinak jarriko ditugu. Gutxi gorabehera, 30 bat. Bakoitzak 1.500€tatik 7.000€tara balio dute. Beraz, 127.500€ gastatuko ditugu makinetan.

Halaber, gure kirol eremuak, txukun eta garbi mantentze aldera, garbitzaile batzuk kontratatuko ditugu, garbiketak gauzatzeko eta gimnasioa garbi mantentzeko. Esaterako, gaur egungo egoera kontuan hartuta, eguneko ordutegian ikusi duzuen bezala, txanda bakoitzaren ondoren, aireztatu egingo dugu gure txokoa eta desinfektatu, garbitzaile hauen eskutik. Era berean, aholkularitza zentru bat ere kontratatuko dugu edota publizitatea egingo digun enpresa bat ere. Baita ere, plataforma teknologikoak kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko norbait kontratatuko dugu.

Azkenik, Gure bazkideei pultsera edo txartela emango diegu, bazkide direla jakiteko.

Kostu egitura gure enpresa aurrera ateratzeak dakartzan kostu guztiak dira. Kostu hauek hainbat taldetan sailka ditzakegu:

- **Kostu finkoak:** Eraikuntza ordaintzea, langileen soldata, SGZ, PFZE, tasak
- **Kostu aldakorrak:** Argindarra, ura, bulego materiala, ezustekoak, kirol materiala